

Bertaratutakoak

Herritarrak:

- 21 bizilagun

Teknikariak:

- Amaiur Mikeo (Tolosako energia teknikaria)
- Maria Ajuria (Farapi kooperatiba elkarte)
- Oier Etxebarria (Goienere)

Landutako gaiak

Ongi etorria

Amaiur Mikeo energia teknikariak ongi-etorria egin zuen eta Goienereko Oier eta Farapiko Maria aurkeztu zituen. Bigarren saioa kokatu zuen eta landuko ziren gaiak azaldu zituen.

Ondoren, kide bakoitzak bere burua aurkeztu eta EBKrekin lotzen zuen ideia bat (hitz edo esaldi bat) ekarri behar zuen. Hauek izan ziren aipatutakoak: Eraikitzen hasteko prozesua, efizientzia, dekrezimentua, sorkuntza proiektua, auzolana, garbia, subiranotasuna, energia eredu eraldaketa, energia faktura murriztea, argitasuna, komunitatea, berriztagarria, beharra, jasangarritasuna, ilusioa, komunitatea-justoa, burujabetza, energia km0, interesgarria, ezjakintasuna.

Faktura ulertzeko pilula

Goienereko Oierrek etxeko faktura elektrikoak ulertzeko pilula formatiboa eman zuen. Bertan, ohiko faktura batean azaltzen diren oinarritzko datuen inguruko informazioa eman zuen, eta partaideen zalantzak argitu zituen. (akta honekin batera aurkezpenaren dokumentazioa helarazten da).

Hauek izan ziren partaideen zalantzak eta Oierrek emandako azalpenak:

- *Gasa komunitarioa dutenak zein aukera dituzte?* Erantzuna: Aukera egon zen arautura pasatzeko, baina baldintza batzuk zeuden (denok kontagailu indibiduala izatea). Kide batzuek gehitu zuten iaz izan zela azken urtea banakako kontadorea jartzeko.

Lantaldeetako lanketa

Partaideak hiru lantaldeetan banatu ziren, eta bakoitzak lantaldeari dagozkion gaiak landu zituen. Ondoren, talde handian, ondorio nagusiak partekatu ziren. Hauek izan ziren:

Juridiko-administratiboa:

Elkarte edo Kooperatiba izaeraren inguruan hitz egin zuten, eta elkarte eta kooperatiba arteko aldea zer den erabakitzeko datu gehiago behar zituztela ikusi zuten. Oierrek ekarriko ditu hurrengo bilerarako. Leku ezberdinetako esperientziak aztertu ziren, baina gehiago landu beharra zegoela ikusi zen.

Proiektuen lantaldea:

Udaletxea prest dago Ferialeko teilatua EBKren esku jartzeko. Tolosako zati bat Tolargin dago, eta bestea Iberdrolan. Eskainitako teillatuak balioko luke Tolargirako, baina ez Iberdrolaren esparrurako. Ikastolarekin ere hitz egin behar da.

Informazio teknikoa ulertzeko ezagutza sakontzen ere jarraitu behar dela baloratu zuten.

Komunikazio-komunitate

Nola komunikatu eta zer komunikatu zehaztu behar da, eta horretarako eredu batzuk ekarriko ditu Mariak hurrengo saioan. Bitartean, Atarian notizia bat publikatuko da. Telebistan ere egin daiteke beranduago. Udaleko whatsapp taldean ere txertatzeko ahalegina egingo da.

Hasierako komunikazioa “hemen gaude” litzake, abiatzeko. Beste EBK bateko kide bat ekartzea ere oso positiboki baloratu zen, beraien prozesua ezagutzeko (eta atal ekonomikoaren inguruko zalantzak ere argitzeko).

Elkarteen zerrenda bat ekarriko da, komunikazioa bideratu ahal izateko. Tokiaren gaia ere aipatu zen (*non bilduko gara? Non izango dugu sedea?*). Izen proposamenarekin ere hasiko da taldea hurrengo saioan.

Talde bakoitzak bere esparruko ondorio nagusiak azaldu ondoren, galdera irekiak egiteko tarte eskaini zen. Energia komunitateak sortzen diru-laguntzak bilatzea eta kudeatzeari nori dagokion galdetu zen. Oierrek talde juridiko-administratiboari dagokiola erantzun zuen.

Agurra eta hurrengo bilerako lanketa:

Hurrengo saioan *Tolosan zertarako EBK?* galderari erantzungo zaiola adierazi zuen Oierrek, garrantzitsua baita ideia orokorrak Tolosan lurreratzea eta taldeak bere egitea.

Aldi berean, autokontsumo partekatuaren inguruan ezagutza partekatzea ere baliagarria zela ikusi zen, eta honi tarte bat dedikatuko zaio hurrengo saioan. Baina lanketa hau lurreratua izateko beharra zegoela adierazi zen: *teillatu zehatz honetan zenbateko ekoizpena egongo da eta horrek zenbat aurrezteka ekarriko ditu herritarrak?*

Hurrengo azaroaren 6an izango da 18:00tan.